**ZERGAITIK?**

. Prailerik ez dala ta
bada kezka nahiko,
ta zer, batzen bagara
praile, monja, laiko?

**ZERGAITIK? ZERGAITIK? ZERGAITIK? ZERGAITIK?**
**ZERGAITIK NEGAR EGIN?**
**GAU BAKOITZAK EGUNA**
**DAKAR BERAREKIN.**

. Nekaldiko Karisma
ez al da betiko?
Geu bizibarritu ta
gugan da biziko.

. Paile, monja ta laiko
danok bat eginik,
Jauna lagun dogula
ez dago ezinik.

. "Ez dago zer eginik"
ta mila histori...
Aita San Paulok dino:
"Guzurra da hori"

. Jesus Gurutzekoa
horra non daukagun,
geuk iragarri behar
zenbat maite gaitun.

. Aitzaki ta hiletak
sobra dagoz hemen,
jo daigun lanera ta
esan daigun: Amen!